

HIL EDO BIZIKO LARRIALDIA, ISTRIPU LARRIA ETA GERTAKARI BASKULAR NAHIZ ZEREBRALAK IZANEZ GERO

## DEITU 112 ZENBAKIRA

### ZAURIAK

- Garbitu zauria ur eta xaboi ugarirekin.
- Eman soluzio desinfektatzailea: ur oxigenatua, esaterako.
- Ahal bada, estali gaza esteril edo garbiarekin.
- **Inoiz** ez erabili kotoia zuzenean zauria garbitzeko.
- **Inoiz** ez kendu gorputz arrotzik zauritik.
- **Inoiz** ez eman alkohol edo pomadarik.

### ODOL-GALERA HANDIA

- Jarri apositua edo gaza-geruza ugari zauriaren gainean.
- Egin presioa zauriaren gainean odoljarioari eusteko.
- Mantendu goian gorputz-adar zauriduna.

### BEGIKO GORPUTZ ARROTZA

- Garbitu ondo ur edo serum fisiologikoarekin.
- Estali begia apositu edo gaza esterilekin.
- **Inoiz** ez saiatu gorputz arrotza ateratzen.
- **Inoiz** ez eman koliriorik, ukendu oftalmikorik edota bestelako substantziarik.

### ERREDURAK

- Bota ur hotza kaltetutako zonaren gainean edo ipini oihal epel hotzak.
- Estali erretako zona apositu edo gazekin, gehiegi estutu gabe.
- **Inoiz** ez eman sendagai topikorik, ezta bestelako substantziarik ere.
- **Inoiz** ez saiatu anpoilak apurtzen.
- **Inoiz** ez eskaini likidorik ahoz erredura larriak dituen inori.

### KOLPEAK ETA UBELAK

- Estutu lesionatutako zona konpresiozko edota kuxin-antzeko hesgailuekin.
- Ipini izotza 20 minuturo 5 minutuko atsedenaldiekin, inoiz ez larruazala zuzenean ukituz.
- Hausturarik dagoela susmatzen baduzu, immobilizatu nahiz bermatu kaltetutako zona, bat-bateko mugimendurik ez giteko.

### GAINERAKO KASUETAN

Joan gertuen duzun Fraternidad-Muprespako laguntza-zentrora edo hitzartutako zentrora. Bila ezazu [fraternidad.com](http://fraternidad.com) webguneko zentro-sarean, edo dei iezaguzu.

## 24 ORDUKO LARRIALDIAK 900 269 269

OINARRIZKO BIZI-EUSKARRIA

